

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIRE ZABALEKO ESKUZKO ZULAKETA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF1147		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Aire zabaleko zulaketak	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aire zabaleko zulaketaren prestaketa eta oinarriak	Iraupena	50
	Kokapena eta aire zabaleko zulaketa mekanikoa	Iraupena	90
	Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduen mantentze-lanak egitea	Iraupena	50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1378_2 AIRE ZABALEKO ZULAKETAK EGITEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eskuzko zulaketa-ekipamenduekin jardutea ekipamenduen funtzionamenduari buruzko eskuliburuaren arabera eta segurtasun-baldintzetan.

E11.1 Aire zabaleko indusketetan erabilitako eskuzko zulagailu-motak deskribatzea, zulagailu bakoitzaren ezaugarri, osagai, aplikazio eta funtzionamendurako printzipio nagusiak adieraziz.

E11.2 Ginbalet-motak identifikatzea, ginbalet bakoitzaren ezaugarriak eta aplikazioa bereiziz, egokienak aukeratzeko, zulaketa-ezaugarrien arabera.

E11.3 Ginbaleten higadura-egoera ezagutzea, ginbaletak ordeztu behar diren erabakitzeke.

E11.4 Eskuzko zulagailua martxan jartzeko jarraitu beharreko prozedura deskribatzea: hornidura-sareekiko konexioa eta bultzatzaileekiko akoplamendua, hala badagokio.

E11.5 Ekipamenduaren posizionamenduak eta orientazioak izan behar dituzten ezaugarriak ezartzea, zulaketaren ezaugarrien arabera.

E11.6 Eskuzko zulaketa-ekipamenduekin jarduteko prozedura deskribatzea, fabrikatzailearen eskuliburuaren arabera eta hartu beharreko segurtasun-neurriak hartuz (zarata, hautsa eta bestelakoak).

E11.7 Kontrolatu beharreko parametroak (bultzada, abiadura, ur-emia, egon litezkeen desbideratzeak eta buxaketak) adieraztea, zulagailuaren errendimendua ezin hobea izan dadin eta matxurarik ez izateko.

E11.8 Lanaldi-amaierako eragiketak deskribatzea.

E11.9 Eskuzko zulaketa-prozesuaren garapenean:

- Zulaketako ginbaletak hautatzea.
- Ingurunea seinaleztatzea, hala badagokio.
- Mahuka guztiak (aire konprimatua, ura) konektatzea.
- Zulagailua lan-frontean kokatzea.
- Zulagailua orientatzea eta barrena-zuloak sarreran jartzea.
- Adierazitako karga-angeluarekin, abiadurarekin, diametroarekin eta luzerarekin zulatzea.
- Aire- eta ur-hornidura nahiz barrena-zuloa buxatzeko aukera kontrolatzea.
- Zulatutako barrena-zuloa garbitzea.
- Zulaketa amaitu ostean, ekipamenduak, mahukak, barrena-zuloak eta gainerako materialak biltzea, adierazitako lekuan eta baldintzetan kokatuz.
- Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala erabiltzea beti.

Edukiak:

1. Eskuzko zulaketa gauzatzeko lanabesak eta makinak.

- Eskuzko zulagailu-mota:
 - Ezaugarriak.
 - Osagaiak.
 - Aplikazioak.
 - Funtzionamendua.

- Fabrikatzailearen eragiketa-eskuliburuak.
- Barrena-zulo motak:
 - Ezaugarriak.
 - Aplikazioak.
 - Zulaketaren ezaugarrien araberako hautaketa.
- Ginbaleten higaduraren egoera eta ginbaletak ordeztu behar diren balioestea.

2. Eragiketak eskuzko zulaketa-ekipamenduekin.

- Zulagailuaren prestaketa:
 - Egiaztapenak.
 - Hornidura-sareetako konexioak.
 - Seinaleztapenak.
 - Bultzatzaileekiko akoplamendua.
- Zulaketa-elementuak hautatzea egin beharreko lanen arabera.
- Martxan jartzea:
 - Kokapena.
 - Orientazioa.
 - Inklinazioa.
- Zulaketa:
 - Kontrolatu beharreko parametroak.
 - Barrena-zuloa garbitzea.
 - Zulaketa seinaleztatzea eta buxatzea.
 - Lanaldi-amaierako eragiketak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1146 Aire zabaleko zulaketaren prestaketa eta oinarriak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa